14. LANA: EUSKALTERM

2006KO AZAROAREN 27A
AZKARATE ILARDUIA, PERU

1. Gaur egungo mundu globalizatuan infromazio teknologien garapenarekin denbora errealean burutzen dira kapital mugimenduak munduko punta batetik bestera.

Definizioa: Banako edo enpresa pribatuek herrialde batetik bestera egindako fondo-transferentzia. Epe laburrerako edo luzerako irabaziak lortzeko izan daiteke.

eu **kapital-mugimendu**

2. Enpresako sindikatu guztiak ez dira presente izan gaurko epresa-batzordean.

Definizioa: Enpresa edo lantokiko langileen ordezkaritza-organoa, kide anitzekoa eta langileen interesak defendatzen dituena. 50 langile edo gehiago dituzten lantokietan eratzen da zuzeneko botazio libre, pertsonal eta ezkutuaren bidez.

eu **enpresa-batzorde**

3. Europako Batasuna izan da azken urteotako batasun ekonomiko, político eta diru-batasun argiena.

Definizioa: Bi herrialde edo gehiagoren arteko elkartea, moneta desberdinak erabiltzeak sortutako eragozpenak konpontzeko edo moneta bakar eta komun bat izatera heltzeko.

eu **diru-batasun**

4. 2000 € tik gorako erosketetan kreditu-aseguru baten bermea derrigorrezkoa omen da.

Definizioa: Merkataritzako eragiketetan, batez ere nazioartekoetan, saltzailea zordunen kaudimengabezia-arriskuaren aurka bermatzeko asegurua..

eu **kreditu-aseguru**

5. Gero eta lehia handiagoa dago telefonia mugikorren merkatuan becerro berriak eskuratzeko.

Definizioa: Enpresaren produktuak (ondasunak edo zerbitzuak) jasotzen dituen pertsona fisikoa edo erakundea, horretarako prezio bat ordaintzeko prest dagoena

eu **bezero**

6. Urtero bezala, urriaren hasieran egin ohi da zerga aitorpena Gipuzkoako Ogasun Publikoari.

Definizioa: Estatuaren eta erakunde autonomoen hartzeko, ondasun, errenta eta zergen multzoa, Estatuko beharrak asetzeko erabiltzen dena.

eu **ogasun publiko** *(forma osoa)*
OP *(forma laburra)*

7. Jose Mari Otaola izendatu dute enpresaren zuzendari komertzial berri.

Definizioa: Enpresa baten merkataritzako eragiketak gidatzen dituen pertsona.
eu **zuzendari komertzial**
salmenta-zuzendari

8. Garrantzitsua da kreditu-poliza ondo irakurtzea ondoren sorpresa larririk ez jasotzeko.

Definizioa: Kreditu-kontu baten baldintzak eta klausula orokorrak eta bereziak jasotzen dituen merkataritzako dokumentua.
eu **kreditu-poliza**

9. Banku transferentzia bidez ordaindu daitezke produktuak.

Definizioa: Banku-kontu batetik bestera dirua pasatzea.
eu **banku-transferentzia**
banku bidezko transferentzia

10. Aurtengo finantza-aurrekontuarekin ez datoz bat sindikatuak.

Definizioa: Enpresa baten premia eta baliabide finantzarioak jasotzen dituen aurrekontua.
eu **aurrekontu finantzario**
finantza-aurrekontu

11. Kreditu erakundeak dira mailegu emaile handienak.

Definizioa: Mailegua ematen duen pertsona fisiko edo juridikoa.
eu **mailegu-emaile**

12. Zor-aitorpena muga eguna baino beranduago egiten bada penalizatu egingo da.

Definizioa: Zordunak hartzekodunarekin duen betebeharra, zorra edo betebeharra aitortzekoa.
eu **zor-aitorpen**

13. Egoera balantzeko pasiboa enpresaren zorrak izan ohi dira.

Definizioa: Entitate baten edo gizabanako baten kapital propioa osatzen duten zor eta ondare-elementuen multzoa.
eu **pasibo**

14. Ondasun higigarri nahiz higiezinek osatzen dute aktibo multzoa.

Definizioa: Egoera-balantzearen zatia, enpresaren ondasun eta eskubideak jasotzen

dituzten kontu-sailek osatzen dutena.
eu **aktibo** *(iz.)*

15. Hornitzaile bakarraren menpe dago enpresa guztia.

Definizioa: Enpresa bati salgaiak, lehengaiak edo bestelako ondasun eta zerbitzuak saltzen dizkion ekoizle edo bitartekaria.
eu **hornitzaile**

16. Gero eta pisu handiagoa hartzen joan den kontzeptua da kalitatea.

Definizioa: Ondasun edo zerbitzu bati bezeroen beharrei behar bezala erantzuteko gaitasuna ematen dioten ezaugarri guztien multzoa. Kalitatea neurtzeko, hainbat ezaugarri hartzen dira kontuan, besteak beste, iraunkortasuna, zehaztasuna, erabiltzeko eta konpontzeko erraztasuna, etab. Enpresetan balio garrantzitsua bihurtu da, erakunde osoan eragina izan behar duena
eu **kalitate**

17. Aurtengo aurrekontuak aurrera eramateko zailtasunak izango ditu gobernuak.

Definizioa: Estatuaren edo beste erakunde publiko baten urteko finantza-egitaraua.
eu **aurrekontu**

18. Mozkin fiskala inoiz izandako handiena da aurtengoa.

Definizioa: Ogasun Publikoari zergak ordaintzeko, mozkin-izaera duen irabazi-bolumena, sarrera konputagarriei gastu deduzigarriak kenduz lortzen dena.
eu **mozkin fiskal**

19. Deskontu tasa oso garestiak eskaintzen dute banku horretan.

Definizioa: Merkataritzako efektuen deskontuan bankuak kobratzen duen interesa.
eu **deskontu-tasa**

20. aurtengo inflazioa % 3 a baino baxuagoa izatea lortu beharra dago.

Definizioa: Prezioen maila orokorra etengabe igotzea.
eu **inflazio**